

## 58. FITXA 2024an Euskadiko liburutegietarako liburu-funtsak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzak

**Nori zuzendua:** liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak, bai eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS) barruan dauden udal erakundeak ere; EIPSKoak izanik toki-erakundeek kudeatzen ez dituzten EAEko beste liburutegi batzuk; EAEko liburutegien titular diren eta EIPSKoak ez diren pertsona juridiko pribatuak.

**Sarbide-esteka:**

Liburutegi sortu berriak: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037517](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037517)

EIPSn sartuta ez dauden liburutegiak: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037519](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037519)

EIPSn sartuta dauden liburutegiak: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037518](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1037518)

**Erreferentziazko araudia:** [AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako liburu-funtsak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia egiten duena](#)

**Eremuak:** Kultura

**Zenbatekoa:** 1.000.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/09/30

### Laburpena

Deialde honen xedea da 2024ko ekitaldian **Euskadiko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko** dirulaguntzak ematea.

EIPSeko liburutegietarako dirulaguntzen lerroetan, udalerrri bakoitzeko erakunde onuradun bakarra egon daiteke; beraz, eskabide bat baino gehiago dauden udalerrietan, lehentasuna izango du udalak, gainerako erakunde eskatzaileen aurretik.

Eskatzaile bat baino gehiago badago, eta horietako bat ere ez bada udala, liburutegi gehien kudeatzen dituen erakundeak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, erakunde eskatzaileek liburutegi kopuru bera kudeatzen badute, lehentasuna izango du liburutegi-funts gehien dituenak.

## Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburategietako funtsen katalogoan eta, EIPSeoak ez direnen kasuan, liburategiko katalogoan sartuko diren **liburuak, aldizkako argitalpenak, soinu-materialak edo ikus-entzunezkoak erosteko** dirulaguntzak jaso ahal izango dira.

Dirulaguntza horiek honako funts hauek erosteko diru-ekarpenak izango dira:

- 1) Liburutegi sortu berrietarako funts-sortak eskuratzeko.
- 2) EIPSeoak ez diren liburategietarako funtsak eskuratzeko.
- 3) Lehendik, EIPSn dauden liburategietako funtsak berritzeko.

**Kasu guztietan beharrezkoa izango da dirulaguntzaren % 25 gutxienez euskaraz argitaratutako obrak erosteko erabiltzea.**